



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

ADIERAZPEN ARTISTIKOA IKASBIDE APRENDIENDO A TRAVÉS DE LA EXPRESIÓN ARTÍSTICA

Gizakiek ohikoa dugu adierazpen ezberdinak erabiliz gure nahi eta beharrak adieraztea. Hori oinarri hartuta, ikasturte honetan adierazpen artistikoa izan dugu jomugan Egape Ikastolan. Lehen Hezkuntzako 4.mailatik 6.mailara arteko ikasleek artearen bidez eta musikaren bidez euren sentipenak adierazi eta kurrikulumua aberasteko aukera izan dute.

LH 4.mailako ikasleek Guggenheim Bilbao museoak antolatuta, "Arte Ikasbide" programan parte hartu dute. Programa honetan arte hezkuntzan ibilbide luzea duen Maider Lopez artistak dihardu gure ikasleekin. Saio horietan, ikasgai ezberdinetan landutakoa sakontzeko bide eman duten zeharkako proiektuak planteatu dituzte ikasgelan. Tailer hauetan sortutakoa Guggenheim museoan jarri dute erakusgai ikasturte bukaeran.

Ildo beretik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailetako ikasleek Soinua Iratzarri Sorkunza Tailerran parte hartu dute. Egitasmo hau, Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak antolatutakoa da. Xabier Otaolea eta Maite Bilbaoren gidaritzapean, ikasleek musikagile batzuk ezagutzeko aukera izan dute eta baita haien konposizio batzuk entzun eta sentitzeko aukera ere, sormenari bide emanet. Ikasleengandik atera diren proposamenak obra bilakatu dituzte ikasleekin lanean diharduten bi konpositoreek. Obra hauetan Saroben egin den jendaurreko emanaldian erakustea izan da azken xedea.

Para expresar nuestros deseos y necesidades los seres humanos utilizamos diferentes vías de expresión. En base a ello, este curso hemos tenido en el punto de mira la expresión artística en la Ikastola Egape. El alumnado de 4º a 6º de Primaria ha tenido la oportunidad de expresar sus sentimientos y enriquecer su currículum a través del arte y la música.

Alumnos y alumnas de 4º han participado en el programa "Arte Ikasbide" organizado por el Museo Guggenheim Bilbao. En este programa colabora la artista Maider López, con una larga trayectoria en educación artística. En estas sesiones se han planteado en el aula proyectos transversales que han permitido profundizar en lo trabajado en las diferentes materias. Para sacar a la luz lo realizado en este recorrido, la creación de estos talleres ha sido expuesta al final de curso en el museo Guggenheim.

En la misma línea, el alumnado de 5º y 6º de Primaria ha participado en el Taller de Creación "Soinua Iratzarri". Este proyecto está organizado por Oficina de la Música de Euskal Herria -Musika Bulegoa-. Bajo la batuta de Xabier Otaolea y Maite Bilbao, los alumnos y alumnas han tenido la oportunidad de conocer a algunos compositores y de escuchar y sentir algunas de sus composiciones, dando paso a la creatividad. Las propuestas que han salido del alumnado han sido transformadas en obras por los dos compositores. El objetivo final ha sido mostrar estas obras en una actuación pública en Sarobe.





HAUR HEZKUNTZAN ERALDAKETAN AURRERA

Bizitzako lehen urteek haurraren garapenean berebiziko garrantzia dutela gauza jakina da. Hori dela eta, Egape ikastolak apustu sendoa egin du, ikastolako eremuak eta materialak gure ikasleen beharretara egokitzeko.

Haur Hezkuntzako gelek itxura aldaketarekin hasi zuten ikasturtea. Aurreko ikasturteetan hasitako hausnarketa eta eraldaketari jarraipena eman genion, espazioei eta materialei arreta eskainiz. Modu honetan, espazio zabalak eskaintzen dizkiegu haurrei, eta ilo beretik, materialak ere haurren esperimentatzeko beharretara bideratuak daude.

Haur Hezkuntzako bi urteko geletan, mugimenduari eman diogu garrantzia, norberak, bere erritmoan, gorputzak eskaintzen dizkion ahalmenak bizi eta probatu ditzan. Horretarako, Piklerren materialaz hornitutako mugimendurako espazioa sortu genuen. Poliki-poliki hornitzen eta osatzen joateko helburuarekin beti ere. Eta bide beretik, datorren ikasturteari begira, Lizardiko eraikineko Psicomotrizitate gelaren eraldaketa dugu helburu. Gorputzaren mugimenduaren bidez haurrek bere garapenean aurrera egin dezan espazio egokia eskaini asmoz.

AVANZANDO EN EL CAMBIO EN EDUCACIÓN INFANTIL

Es algo sabido que los primeros años de vida tienen una importancia vital en el desarrollo del niño o niña. Por ello, la ikastola Egape ha apostado fuerte por adaptar los espacios y materiales de la ikastola a las necesidades de nuestro alumnado.

Las aulas de Educación Infantil comenzaron el curso con un cambio de aires. Continuamos con la reflexión y transformación iniciada en cursos anteriores, prestando atención a espacios y materiales. De esta manera, ofrecemos amplios espacios a los niños y niñas, y en la misma línea, los materiales también están orientados a sus necesidades experimentales.

En las aulas de dos años de Educación Infantil hemos dado importancia al movimiento para que cada niño o niña, a su ritmo, viva y pruebe las potencialidades que le ofrece el cuerpo. Para ello creamos espacio para el movimiento provisto de material de Pikler. Siempre con el objetivo de ir completándolo progresivamente. Y en la misma línea, de cara al próximo curso, tenemos como objetivo la transformación de la sala de Psicomotricidad del edificio de Lizardi. Con el fin de ofrecer un espacio adecuado para que el niño o niña avance en su desarrollo a través del movimiento corporal.





EMAKUME BASERRITARRAK IKASTOLAN

Euskal Herrian, eta Gipuzkoan bereziki, hainbat hamarkadetan zehar baseria izan da herritar askoren bizileku eta ogibide. Badira, ordea, urte batzuk zeinetan baserriak indarra galduz joan eta herriak eta hiriak garatu diren garapenaren edo aurrerapenaren seinale delakoan. Kontua da, herritarrak, eta nola ez gazteak, pixkanaka baserritik eta baserritarrengandik gero eta urrunago gaudela.

Oraindik baserrian, eta baserritik bizi diren familiak baditugun arren, ikasle gehienak gutxi dakite egungo baserritarren bizimoduari buruz. Egoera hau zuzentzeko asmoz, bi ama-baserritar gonbidatu ditugu guregana haien bizimoduaz hitz egitera.

Bazkalondo batean, haien lanak utzitako tarte batean, gurean izan ditugu Olatz Manterola eta Izaskun Aizpurua DBH 2.mailako ikasleekin. Gure galderie erantzuteaz gain, makina bat istorio, kuriositate eta bizipen transmititu dizkigute bai Olatzek eta baita Izaskunek ere. Galdera batzuk besteak sortu dituzte, eta bizipen batzuk beste batzuetara eraman gaituzte eta horrela, ordu terdi ederra igaro dugu baserriko bizimoduaren inguruan hizketan.

Ikasleak harrituta izan ditugu baserritarren egunerokoaren nondik norakoak ezagututa: zenbat lan, zenbat kezka, zenbat zaitasun eta traba, zein laguntza gutxi, zein etekin ekonomiko eskasa... eta aldi berean, zenbat pasio eta maitasun baserriarekiko.

Atsegina eta ederra izan da bi emakumeren konpainian egotea eta ikasleengan, altxorrik diren, gure baserriekiko jakinmina eta interesa piztea. Esperientzia ahaltezina izan da.



MUJERES BASERRITARRAS EN LA IKASTOLA

En el País Vasco, y especialmente en Gipuzkoa, el caserío ha sido durante décadas el lugar de residencia y oficio de muchos vecinos y vecinas. Sin embargo, en años los caseríos han ido perdiendo fuerza y los pueblos y ciudades se han desarrollado como signo de progreso. El caso es que estamos cada vez más lejos del caserío y de los y las baserritarras.

Aunque todavía tenemos familias que viven del caserío, la mayoría de nuestro alumnado sabe poco del modo de vida de los y las baserritarras actuales. Con el objetivo de corregir esta situación, invitamos a dos madres-baserritarras a la ikastola.

Olatz Manterola e Izaskun Aizpurua respondieron a las preguntas del alumnado de 2º de ESO y nos contaron infinidad de historias, curiosidades y vivencias. Unas preguntas generaron otras, y unas vivencias nos llevaron a otras. El alumnado conoció así el día a día de las baserritarras: cuántos trabajos, cuántas preocupaciones, cuántas dificultades y trabas, qué pocas ayudas, qué escaso rendimiento económico y a la vez, cuánta pasión y amor por el caserío. Fue agradable y hermoso estar en compañía de estas dos mujeres y también haber despertado en nuestro alumnado la curiosidad y el interés por nuestros caseríos.

